

EGILEA

Roberto Santiago

IRUDIGILEA

Enrique Lorenzo

GAIAK

Umorea. Kirola (futbola).
Familia. Kulturartekotasuna.
Misterioa. Adiskidetasuna.
Poza eta baikortasuna.
Maitasuna. Talde-lana. Etika

GAITASUNAK

Herritartasunerako
gaitasuna. Gaitasun
pertsonala, soziala
eta ikasten ikastekoa

BESTE ARLOEKIKO
LOTURA

Gorputz-hezkuntza

ORRIALDE-KOP.: 288



Norberaren atean sartutako zazpi golen misterioa

Irabaz dezala... joko garbiak!

ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Futbolearen jokatzeko duen eguneroko istorio, abentura eta argitu gabeko misterioei esker, milioika irakurle-aren artean lortu duen bilduma bateko liburua delako. Trebetasunez uzartzen dituelako erraz ulertzeko moduan idatzitako kapitulu laburrak eta komiki eran idatzitako kapituluak, irakurketara gerturatzeko modu desberdinak proposatuz.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Futboleroek beste misterio handi bat argitu behar dute: irabazi al daiteke partida bat gol bakar bat ere sartu gabe? Eta torneo oso bat? Zenbaitetan, norberaren atean sartutako golak lehen begiratuan dirudiena baino gehiago adierazten du. Izan ere, Benidormeko torneooko emaitzak adostuak izan dira, baina ez dago detektibe-talde honek argitu ezin duen misteriorik. Azkenean, dena argituko dute, eta Futboleroek final justu bat jokatu ahal izango dute. Eta kasu horretan, nork irabaziko du?

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Irakurle-mota guztientzat, lagun-taldeei, misterioei, abenturei, kirolari eta bidaiari buruz hitz egiten duelako: arrakasta ziurtuta dago!

JARDUERA-PROPOSAMENA

BAKARKA

Eskatu ikasleei **komikiko istorioaren laburpen** bat egiteko. Azaldu ezin dituztela 6-8 bineta baino gehiago egin, arreta istorioko gertaera garrantzitsuenei jartzen ikasteko eta, horrela, edukiak laburtzeko eta lehenesteko gaitasuna lantzeko.

TALDEA

Jarduera hau egiteko, interesgarria izan daiteke Futboleroen webgunean sartzea (www.losfutbolisimos.es) eta bildumaren trailerra ikustea. Banatu ikasleak talde txikitan, kontuan hartuta, ahal dela, talde bakoitzean egon behar duela bildumako beste liburuak ezagutzen edo irakurri dituen kideren bat. Gero, proposatu ikerketa-lan txiki bat egitea eta bilduma honetako **beste eleberrri baten aurkezpena** prestatzea. Gogorazi **bideo** formatuan egin dezaketela, sarean dauden **booktuberren** antzera.

GORPUTZ-HEZKUNTZA

Denon artean, **eztabaidatu kirol profesionalari** buruz. Aurrez, zenbait gai proposa diezazkiekezu ikasleei, erabiliko dituzten argudioak prestatu ahal izateko. Hona hemen eztabaidatu daitezkeen zenbait gai:

- *Futbolarien soldatak mugatuta egon behar al luke? Eliteko beste kirolari batzuek ere horrelako soldatak al dituzte?*
- *Txapelketak irabazi ohi dituzten taldeak diru gehien dutenak izaten al dira beti?*
- *Egokia al litzateke talde bakoitzak harrobiko jokalariekin soilik jokatu ahal izatea?*

Gogoratu ikasleei helburua ez dela erantzun zehatzetara iristea, kirol profesionalarekin loturiko gai etikoei buruz elkarrekin hausnartzea baizik, egungo errealitateari buruzko pentsamendu kritikoa garatu ahal izateko eta gizartean egunerokoak diren gaietan sakontzen ikasteko.

IDAZKETA-TAILERRA

Camuñasen aitak kanta bat asmatu du Futboleroentzat (15. or.), baina ez dirudi asko gustatu zaienik. Animatu ikasleak Soto Alto taldearentzako beste **ereserki** bat asmatzera. Beste kanta baten musika erabil dezakete, eta letra aldatu; edota beste kanta hori har dezakete oinarri, eta hari aldaketak egin.